


Begiratu ezazu ibilbidea GPSan
*Visualiza la ruta en el GPS*

Bidegurutze *Cruce* · Aterpea *Refugio* · Parking · Iturria *Fuente* · Hondarrak *Ruinas* · Panoramika *Panorámica* · Koba *Cueva* · Santutegia *Santuario* · Gatz Museoa *Museo de Sal*

Luzeera *Longitud:* 7,57 Km
Denbora *Tiempo:* 2h 45min

Sailtasuna *Dificultad:*
Erreza *Fácil*

Desnibela *Desnivel:* 743 m




PR-Gi 100
eskolore
betiko bideak
Luzeera *Longitud:* 5,2 Km
Denbora *Tiempo:* 1h 45min
Sailtasuna *Dificultad:*
Erreza *Fácil*

# Enekoren Gazteluko Ibilbideak

Eskoriatza Atxorrotx Leintz Gatzaga

7,57 Km.
2h. 45m.
Erreza/*Fácil*

Atxorrotxeko gaztelua, lehen aldiz, Atarrabiako foruari buruzko 1184. urteko dokumentu batean aipatzen da, Aizorroç-eko tenentetzat Enecone de Oriz aipatzen denean. Erregeek izendatzen zituzten tenenteak, eta beraien betebeharren artean zeuden bere esku utzitako lurraldea defendatzea eta lurralde hori erregearentzat administratzea.

Ezagutzen dugun lehenengo Atxorrotxeko arduradunari dagokionez, hainbat dokumentutan agertzen da Eneco, Enecone, Enequo edo Iñigo izenez. Badakigu Orizen zuela jatorria, bere abizeneko “de” horrek aditzera ematen duen bezala. Nafarroako herri txiki hori Iruñerrian dago, Tiebas eta Beriain artean.

Gure gaztelu hau agertzen den lehenengo dokumentuan Enecone aipatzen da Aizorrozeko tenentetzat. Beranduago, 1186. urteko beste dokumentu batean, Ypuzcoako, Arabako eta Aitzorrotzeko tenente bezala agertzen da. 1187. urtetik aurrera Atxorrotx bakarrik aipatzen da Gipuzkoako tenentzia bakartzat, Gipuzkoako tenentzia bera ez baita gehiago agertzen dokumentuetan -eta horrek erakusten du gaztelu honen garrantzia- Antxo VII.a Indartsuak Donostiako tenentzia sortu arte 1199. urtean.

Eneco de Orizek bere ardurapean izan zuen Gipuzkoako ekialdetik Kantaurirainoko lurraldea kontrolatzen zuen tenentzia hau. Dokumentuei esker dakigu Atxorrotxen izan zela 1184tik 1189ra arte, Erregeak aginduta Tafallara joan behar izan zuen arte.



*El castillo de Atxorrotx se documenta por primera vez en un documento de 1184 sobre el fuero de Atarrabia, cuando se cita como tenente de Aizorroç a Enecone de Oriz. Los tenentes eran nombrados por el rey, y tenían la obligación de defender el territorio que se les encomendaba, y administrarlo para el reino.*

*Respecto a su primer responsable conocido, aparece en varios documentos con nombres como Eneco, Enecone, Enequo o Iñigo. Sabemos que es originario de Oriz, tal y como refleja su apellido “de”. Esta pequeña población navarra se sitúa entre las localidades de Tiebas y* Beriain*, en la Cuenca de Pamplona.*

*En el primer documento donde aparece nuestro castillo se nombra a Enecone como tenente de Aizorroz. Posteriormente, en otro documento más tardío, fechado en 1186, consta como tenente de Ypuzcoa, Alava y Aitzorrotz. A partir de 1187 se cita exclusivamente Atxorrotx como tenencia única de Gipuzkoa, ya que la propia tenencia de Gipuzkoa no aparece más en los documentos, lo que refleja la importancia de este castillo, hasta que en 1199 el rey Sancho VII el Fuerte funda la tenencia de San Sebastián.*

*Eneco de Oriz tuvo a su cargo esta tenencia que mantenía un control de la zona oriental de Gipuzkoa hasta el Cantábrico. Gracias a los documentos sabemos que se mantuvo en Atxorrotx desde 1184 hasta 1189, hasta que se desplazó a Tafalla por orden del rey.*

## IBILBIDEA

Eneco de Orizen gazteluak lurralde zabala kontrolatzen zuen, batez ere, merkataritzarako biderik garrantzitsuenak, baina, baita espazio txikiak, larreak eta merkataritzarako bide txikiak ere. Tenentzia administrazio lurralde bat zen, eta bertan, arduradunak, erregearen aginpidez, hainbat lan egiten zituen: zergak bildu, justizia administratu eta mugape hori defendatu. Burdinolak, mendiak eta gatzagak koroaren ondare ziren, eta tenentearen ardura zen horiek ondo administratzea.

Erdi Aroan garrantzi txikiko bide sareak zeuden, hiri, herri, monasterio eta gazteluetara merkantziak eramateko.

Horrela sortu zen Enecoren gaztelua deitu dugun bide hau.

## *LA RUTA*

*El castillo de Eneco de Oriz controlaba un amplio espacio territorial, sobre todo las rutas comerciales más importantes, pero también los espacios pequeños, los pastos y pequeñas vías comerciales. La tenencia era un territorio administrativo, donde su responsable ejercía por mano real varias tareas, recaudar impuestos, administrar justicia y defender dicha demarcación. Las ferrerías, los montes o las salinas eran patrimonio de la corona, y el tenente se encargaba de asegurar su buen funcionamiento.*

*En la Edad Media existió una serie de redes de vías y caminos de pequeña importancia por las que llegaban las mercancías a villas, aldeas, monasterios y castillos.*

*Es así como surge esta ruta que llamamos el Castillo de Eneco.*

## ZER IKUSI ESKORIATZAN — *QUE VISITAR EN ESKORIATZA*



1


SAN PEDRO ELIZA – *IGLESIA DE SAN PEDRO*

XVIII. mendearen bukaeran eraikia.
Barroko estilokoa.
*Construida durante la segunda mitad del siglo XVIII. De sencillo estilo barroco.*

2


ZUBIATE LABEA – *HORNO DE ZUBIATE - MUSEO*

XIX. mendeko labe hau Kultur Intereseko ondasuntzat sailkatua du Eusko Jaurlaritzak.
*Horno del siglo XIX está clasificado por el Gobierno Vasco como Bien de Interés Cultural.*

3


ERROSARIO SANTUKO OSPITALA
*HOSPITAL DEL SANTÍSIMO ROSARIO*

XVII. mendearen hasieran eraikia, probintziako monumentu historiko-artistiko izendatua.
*Construido a principios del siglo XVII. Declarado monumento histórico-artístico de carácter provincial.*

Eskoriatza
JAN ETA LO
*COMER y DORMIR*

Zzzzz...

www.eskoriatza.eus

112 SOS DEIAK

ibilbideak
mugitzeko aukerak
ideas para moverse

eskoriatzako udala